

3/2002 IRIZPENA

Euskadiko osasun zaintzaren esparruan aurretzako borondateen Lege Proiektuaren Zirriborroaren gainean

Bilbon, 2002ko apirilaren 12an

I.- AURREKARIAK

Martxoaren 8an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera Osasun Sailaren idatzia sartu zen, non Euskadiko osasun zaintzaren esparruan aurretzako borondateen Lege Proiektuaren Zirriborroaren gaineko txostena eskatzen baitzitzaion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen gaineko ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lege hau, funtsean, pertsonen interbentzio mediko batzuei dagokienez aurretiaz beren nahiak adierazteko eskubidea, osasun zaintzaren esparruan aurretzako borondateen dokumentua araututa, gauzatzeko asmoa duen testu gisa eratu da.

Idatzia jaso eta berehala Zirriborroa Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei igorri zitzairen, beren proposamen eta iritziak bidal zitzaizkien, eta proposamen eta iritziok zegoen Lan Batzordera helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduko Arautegian ezartzen den bezala.

Martxoaren 27an Gizarte Garapeneko Batzordeak lan bilera izan zuen, Irizpen Aurreproiektuko lehenengo zirriborroa eztabaidatzeko, non Batzordeko Osoko Bilkurako kideek egindako oharra sartuak baitzeuden. Batzorde horretan erabakitakoan oinarrituta, Euskadiko EGBk gaurko eguneko dataz ondoko Irizpen hau onetsi du.

II.- EDUKIA

Euskadiko osasun zaintzaren esparruan aurretzako borondateen Lege Proiektuaren zirriborroaren testua honelaxe osatuta dago: Motiboen azalpena, zazpi artikulua eta amaierako xedapen bat.

Motiboen azalpena:

Legegintzako ekimen honen xedea herritarrek beraiei ukitzen dieten erabaki klinikoaren gaineko borondatea aurretiaz adierazteko eskubidea gauzatea da, Autonomia Estatutuaren 18. artikulua EAEri barruko osasunaren alorrean ematen dizkion Estatuko legedi oinarritzakoa garatzeko eta gauzatzeko eskumenez baliatuta.

Testuak azaltzen du estatuko antolamendu juridikoak ez duela beren beregi ezagutu pazienteen nahiak aurretiaz adierazteko ahalbidea, bizi bitarteko testamentu, aurretzako jarraibide edo aurretzako borondate gisa ezagutzen dena, eta Ovidoko Itunaren berrespenak Autonomia Erkidegoei gai hori arau dezaten ateak zabaldu dizkiela.

Hartara, pazienteen errespetuan eta autonomian oinarritutako Legea aurkeztu da, bere xedapen laburretan, ahalik eta edukirik zabalena izatea hautatu duena, bizi bitarteko xedek berak eta pertsonen baloreak adieraztetik nahi diren edo

ukatzen diren tratamenduen gaineko jarraibide xehatuak edo ez hain xehatuak hartzeraino sartzeko aukera eskainiz, behar izatekotan medikuarekiko edo osasun zaintzako ekipoarekiko mintzakidea izango den ordezkaria izendatzea ere tartean dagoelarik.

Xedapenen Gorputza

1. artikulua definitzen du Legearen xedea, eta dio EAEn pertsonen interbentzio mediko batzuei dagozkenez dituzten nahiak aurretiaz adierazteko duten eskubidea nola gauzatu behar den zehaztea dela, osasun zaintzaren alorrean aurretiazko borondateen dokumentua araututa.

2. artikulua ezartzen du, horretarako legez gaitasuna duen eta libreki ari den pertsona heldu orok osasun zaintzaren esparruko aurretiazko bere borondateak adierazteko eskubidea daukala, baita medikuaren edo osasun zaintzako ekipoaren aurrean berak emandako jarraibideak interpretatu, baita osatu ere egingo dituen mintzakidea izendatzeko, kasua iristekotan erabaki klinikoak hartzeko orientazio izan daitezen.

3. artikulua aurretiazko borondateen dokumentua arestiko artikuluan ezagututako eskubideak gauzatzen dituen bitartekoa dela esanez aurkezten du. Dokumentu hori notarioaren aurrean, Aurretiazko Borondateen Euskadiko Erregistroaren menpeko funtzionario baten aurrean eta lekuko baten aurrean, edo hiru lekukoren aurrean formalizatuko da. Dokumentua, 4. artikulua dioen bezala, aldarazi, ordeztu edo baliorik gabe utzi ahal izango du eman duenak, arestian aurreikusitakoaren arabera.

5. artikulua, ordea, gogora ekartzen du, subjektuaren borondatea aurretiazko borondateen dokumentuan jasotako jarraibideen gainetik egongo dela beti, eta aldi berean ez direla jarritzat hartutako aplikatzeko garaian antolamendu juridikoaren aurkakoak diren zein pazienteari ondo ez datozkion jarraibideak.

6. artikulua Aurretiazko Borondateen Euskadiko Erregistroa arautzen du, arautegietan esan bezala sortu, eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren menpe egongo dena, non inskripzioa borondatezkoa izango baita. Erregistro hau isilekotasunaren eta antzeko helburua duten beste erregistro batzuekiko elkar loturaren printzipioetan oinarrituko da.

7. artikulua, eta azkenak, inskribatu gabeko azkeneko borondateen dokumentuak sinatu dituenak, bere senideek zein izendatutako ordezkariak eman beharko dituztela osasun zentroan, eta aldi berean, inskribatutako dokumentua bada, pertsona horiek ere ematea daukatela gehituz.

Amailerako Xedapenak baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari Lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

III.- OHARRAK

Ohar orokorrak

I – Balorazio orokorra

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde honek ondo ikusten du Euskadiko osasun zaintzaren esparruan aurretiazko borondateen Lege Proiektuaren zirriborroa, pertsonen balore eta nahiak errespetatu daitezela laguntzeko xedea duen heinean, errespetu hori beren buruaren ordezkari izan ezin duten egoeretan daudenean ere gordeko baita, baita bizitzaren amaieran pertsonaren duintasuna zainduz ere.

Azken finean, Lege honek naturaltasun izaera ematen die praktika medikoan gertatu ohi diren egoerei, eta pazientearen borondatearen bermean aurrera pausua da, eta medikuak pazienteen senideekin sor litezkeen auzien aurrean babestean ere bai.

II – Erabilitako hizkuntza

Gure gizartean jendeak erabili ohi dituen esapideak direla aitortu arren, Batzorde honek lege testu honen idazleari geneko maskulinoa erabiltzea saihesteko arreta handiagoa jar dezan gomendatzen dio, "ciudadano", "médico" edo "notario" bezalako hitzen ordez neutroagoak eta hizkuntzaren erabilpen ez-sexitaren printzipioarekin bat datozen beste batzuek jarri.

Bestalde, testuak behin eta berriro aipatzen du "interbentzio" hitza, benetan adierazi nahi duena pertsonari egin ahal zaizkion jarduera mediko desberdinak direnean. Gure ustez, hobe litzateke "jarduera" hitza erabiltzea, "interbentzio" hitzaren ordez, "interbentzio" hitza "ebakuntza" hitzaren sinonimotzat hartu eta artikulua jarduera medikoez orokorrean aritzeko duen asmoa distorsionatzea gerta baitaiteke horrela.

Irizkin orokor hauek eginda, Euskadiko EGBk beharrezko irizten dio Euskadiko osasun zaintzaren esparruan aurretiazko borondateen Lege Proiektuaren gainean ondoko **Berariazko Oharrak** egiteari:

Motiboen azalpena:

Testuak legegintzako ekimen honen funts gisa Ovidoko Itunaren edukari garrantzi berezia ematen dionez, beharrezko irizten diogu Motiboen Azalpenaren lehenengo lerroaldearen idazketa osatzeari, Itun horren gaineko informazio gehiago eman dezan, ituna sinatu dutenak aipatuz. Hartara, dokumentuaren lehenengo lerroaldea honelaxe geratuko litzateke:

"Biologiaren eta Medikuntzaren aplikazioei dagokienez, pertsonen eskubideak eta pertsonaren duintasuna babesteko Ituna, 1997ko apirilaren 4an Europako Kontseiluko estatu kideek, gainerako Estatuak eta Europako Batasunak sinatua, eta Ovidoko Ituna izenaz ezagunagoa dena, II. kapituluaren baimentzeaz ari da"

1. artikulua: Legearen xedea

Legearen xedea definitzean, uste dugu egokia dirudiela pertsonak izan daitezen beren borondatea kontua hartu behar zaieneko jarduerak behar dituztenak eta, edonola ere, sinatzaileen informazioa eta autonomia direla nagusitu behar direnak. Beraz, EGBren iritziz, artikulua honetan "zenbait interbentzio" esapidea ezabatu eta horren ordez "jarduera" idatzi behar da. Ondorioz, testua honelaxe geratuko litzateke:

"Lege honen xedea pertsonak jarduera medikoei dagokienez dituzten nahiak aurretiaz adierazteko duten eskubidea Euskadiko Autonomia Erkidegoan gauzatzea da, osasun zaintzaren esparruan aurretiazko borondateen dokumentua araututa.."

3. artikulua: Aurretiazko Borondateen Dokumentua osasun zaintzaren alorrean. 2. atala.

Atal honek, idatzita dagoen bezala, notarioaren irudiari dagokionez gaizki ulertzerak daramala uste dugu, beraz, notarioaren esku hartzea aukerazkoa dela argitzeko aldarazi beharko litzateke.

Hartara, atal hori honelaxe idatz liteke:

Aurretiatzko borondateen dokumentua, aukeran, notarioaren aurrean, edo Aurretiatzko Borondateen Euskadiko Erregistroaren menpeko funtzionario baten aurrean eta lekuko baten aurrean, edo hiru lekukoren aurrean formalizatuko da.

6. artikulua: Aurretiatzko Borondateen Euskadiko Erregistroa. 2. atala.

Erregistro hau "Aurretiatzko Borondateen beste Erregistro batzuekin eta osasun artapena ematea eta osasun artapena izateko kudeaketa xede duten beste erregistro batzuekin" elkarlotuta egongo dela esaten da.

Batzorde honek zalantzan jartzen du "osasun artapena izateko kudeaketako erregistroen" aipamenaren balioa, beraz, azpimarratutako testua ezabatzea gomendatzen du, edo bestela, horren ordez ondoko hau jartzea:

"... eta osasun artapena xede duten beste erregistro batzuekin".

7. artikulua: Aurretiatzko borondateak osasun zentroari jakinaraztea. 1. atala.

Esaten da "Aurretiatzko Borondateen Erregistroan inskribatu gabeko azkeneko borondateen dokumentua sinatu duenak, bere senideek zein izendatutako ordezkariak eman beharko dituztela gaixoa artatzen duten osasun zentroan".

Atal honen edukiaren bat gatozen arren, uste dugu nolabait kalifikatu behar dela familiak zein ordezkariak inskribatu gabeko dokumentuak nahita ezkutatzen dutenean, halakorik gerta ez dadin.

7. atala: Aurretiatzko borondateak osasun zentroari jakinaraztea. 2. atala.

Esaten da:

"Aurretiatzko Borondateen Euskadiko Erregistroan inskribatutako aurretiatzko borondateen dokumentua sinatu duenak, bere senideek zein bere ordezkariak ere ematea izango dute".

Gure iritziz, aurretiatzko borondateen dokumentua emateko aukera sinatu duenak soilik dauka, hala egiteko gaituta badago, eta senideek eta ordezkariak ez dutela horretarako aukerarik izan behar, zeren sinatzaileak aukera hori besteren esku utziko baitu bera gai ez izatekotan. Ondorioz, honelaxe idaztea iradokitzen dugu:

"Sinatzaileak ezin duenean, bere senideek edo bere ordezkariak emango dute osasun zentroan Aurretiatzko Borondateen Euskadiko Erregistroan inskribatutako aurretiatzko borondateen dokumentua".

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGBk egoki irizten dio Euskadiko osasun zaintzaren esparruan aurretiatzko borondateen Legearren Proiektua izapidetzeari, kontsultarako erakunde honek egin dituen ohartarazpenekin.

3 / 2002 IRIZPENA

Era berean, Batzorde honek Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari legegintzako ekimen honek ofizialki aldarrikatzen den arte jarraitzen duen prozesuaren jakinaren gainean egon nahi duela adierazten dio, baita legearen ondorioz datozen araudien eta, bereziki, Aurretiazko Borondateen Euskadiko Erregistroa arautuko duen arautegiaren garapenaren jakinaren gainean ere, bidezkoak badira, dagozkien ekarpenak egin ahal izateko.

Bilbon, 2002ko apirilaren 12an

O.I. Batzorde Burua
Rafael Puntonet del Río

Idazkari Nagusia
Manuel Aranburu Olaetxea